

ANE ZABALETA BAÑOS
Leitzako Udaleko Idazkariak,

ZIURTATZEN DU: 2022ko martxoaren 29an egindako batzarrean, Leitzako Udalbatzak akordio hau onartu zuela:

**""8.- GESERLOCAL S.L. LEITZAKO UDALEKO ERAKUNDE INSTRUMENTALA
DEKLARATZEA**

Geserlocal S.L. NUKFk eta Zangozako, Erriberriko eta Lizarrako udalek sortutako merkataritza-sozietatea da, Nafarroako toki entitateei nahitaezko diru-billetaren alorrean zerbitzua emateko. Egun, Geserlocalek bere helburu sozialaren barruan dauden bestelako zerbitzu osagarriak ematen dizkie toki entitate horiei.

NUKFk Sozietatearen kapitalaren %97 du eta gainontzekoa aipatu udalei dagokie.

Orain arte, Geserlocalek beste zerbitzu batzuk eman dizkie Nafarroako toki entitateei kontratazio araudiaren arabera esleitze akordio bidez.

Kontuan hartuta kontratazioari buruz indarrean dagoen araudia eta botere esleitzaleei eta erakunde instrumentalei buruz dauden aurreikuspenak, bereziki Kontratazio Publikoari buruzko 24/2014 Zuzentaraua eta apirilaren 13ko Nafarroako Kontratu Publikoari buruzko 2/2018 Foru Legea, Sozietate honi erakunde instrumentalaren izaera esleitzea posible da ez soilik haren kapitalean parte-hartzea duten udaletan baizik eta NUKFren kide diren toki entitateetan ere, Federazioa sozietatearen titular nagusia delako. Horrenbestez, erakunde instrumentala izateko baldintzak bete egiten dira:

- 1.- Sozietatearen kapital guztia publikoa da.
- 2.- NUKFk eta horri atxikitako toki entitateek, federazioaren bitartez, batera egiten dute Sozietatearen gaineko kontrola.
- 3.- Geserlocalek bere jardueraren funtsezko zati bat bitarteko propio gisa esleitu duten toki entitateentzat egiten du.

Hala jakinarazi du Nafarroako Kontratazio Publikoko Batzordeak 1/2021 txostenean.

Aurrekoa kontuan harturik, NUKFren Batzorde Betearazleak irailaren 14an egindako saioan erabaki zuen Geserlocal Federazioari atxikitako toki entitateen erakunde instrumental bihurtzea hala erabakitzen duten toki entitateetan.

Horrenbestez, Nafarroako Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 8.2.d) artikuluan xedatutakoari jarraiki,

Leitzako Udalbatzak aho batez ERABAKI DU:

1.- Geserlocal S.L Leitzako Udaleko erakunde instrumental deklaratzeari aipaturiko Foru Legearen 8. artikulua xedatutakoaren ondorioetarako.

2- Adieraztea enkarguek nahitaezko diru-bilketari, isunen kudeaketari, kontabilitateari eta sozietatearen xedearekin bat datozen beste batzuei dagozkien prestazioak har ditzaketela barnean.

3.- Honako erabakia NUKFri eta Geserlocali jakinaraztea eta Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzea."""

Honela jasota gera dadin eta ondorio osoak sor ditzan ziurtagiri hau luzatzen dut.

Leitza, 2022ko ekainaren 7a

Ane Zabaleta Baños
Idazkaria